


Bohr-en eredu atomikoa: eskema

Rafa Muñoa
Lizardi
Zarautz


1. Argiaren ezaugarriak



Zenbat eta maiztasuna handiagoa, hainbat eta handiago izpiak duen energia.


Argi urdinak, gorriak baino energia gehiago du.

2. Saioa





Elementu baten lagina, energia hartu ondoren, emititu egiten du argia, berari dagokion espektra sortuz (elementu bakoitzak bere espektra du, besteekiko ezberdina). Beraz, **espektra, materiaren ezaugarria** da.

Espektra lortzeko, izpiak prisma baten bidez banatu behar dira.



3. Eredu atomikoa



Elektroiek, beheko mailalara jeistean, energia askatzen dute; zenbat eta handiagoa izan jautzia, hainbat eta energia gehiago askatzen dute izpi forman.

Hidrogeno atomoan, lehen mailara jeistean argi ultramorea askatzen da; 2. mailara jeistean ikuskorra eta 3. mailara jeistean infragorria.